



ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA

Areson, 2017ko azaroaren 16an, 19.00etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivitek Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

Organua : Batzarra

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2017/11/16

Ordua: 19.00

Lekua: Udalaren Batzar Aretoa

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

M^a Asunción Arratibel Onsalo

Xabier Domingo Zubillaga Uranga

Ur Alguero Chivite

Javi Belaunzaran Mariezcurrena

Mikel Baraibar Garmendia

Jon Gurrutxaga Etxeberria

BERTARATU EZ DIRENAK

Eden Alguero Chivite

IDAZKARIA

Amaia Elkano Garralda

GAI ORDENA:

1. 2017ko urriaren 16ko aktaren onespena.

2. PDR: proiektuaren onarpena.
3. PDF: Landa Garapen Planen baitan sartu eta bertako finantziazio eskaeraren onarpena.
4. Aresoko idazkaria, Mendialdea eta Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateetako idazkari moduan aritzeko enkomienda hitzarmena.
5. Banda Zabalaren ezarpenerako Nasertic enpresak aurkeztutako "Areso- A15 –Leitza loturarentzako hobiratze proiektua"-ren onarpena eta honen finantziazio planaren onarpena Nafarroako Tokiko Inbertsioetarako Planaren bidez.
6. 2016ko kontuen likidazioa.
7. Aurrekontu aldaketa 7/2017; kreditu gehigarria.
8. Alkate ebazpenak.
9. Mozioak: Udalbiltza kataluniari buruzko adierazpena.
10. Eskaera eta galderak.
11. Denetarik

Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak bilera hasi eta berau publikoak izendatua, 19.00ak direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako quoruma nahikoa dela, gairerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1. AURREKO BATZARREKO AKTAREN ONARPENA

Aurreko batzarreko aktaren laburpena egiten du alkateak, 2017ko urriaren 16koa, eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- 2017ko urriaren 16ko ohiko batzarreko akta onartzea.

2. PDR PROIEKTUAREN ONARPENA: Erabilera anitzetako eremuaren sorrera.

Alkate jaunak, Landa Garapen Planaren finantziazio deialdiara aurkezteko osatu duen proiektua azaltzen du. Hain zuzen ere, Eskol- etxeko lehenengo solairuko ekialdeko aldean, erabilera anitzetarako eremua sortzean datza bere proposamena. Esate baterako, liburutegia, eskolaz kanpokoak, jangela eta bestelako zerbitzuak emateko aukera eskainiko lukeen eremua sortzeko proposamena da.

Proiektu honek, APYMA, Lagun Artea gazte taldea, Aresoko Kirol Elkarteak, eta bestelako elkarten babesa duela azaltzen du.

Kostuari dagokionez, 59.630 eurotan aurreikusita dago (BEZa kanpo) eta kantitate hori, LGPren bidez finantziatzea proposatzen du. Eskol- etxe honen leiho eta bestelako zurginteria aldatzeko, Nafarroako Tokiko Inbertsio Planaren finantziazioa lortu dela gogoratzen du, eta



beraz, horrek eraikinaren efizientzia energetikoa ere hobetuko duela, proiektu honetarako lagungarria izango dena.

Modu honetan, Aresoko Batzar Orokorrak, aho batez, Aresoko Eskol- Etxeko ekialdeko lehenengo solairuan, Erabilera Anitzetako eremua sortzeko proiektua onartzen du, Arista Arquitectos S.L.-ek aurkeztutako Memoriaren arabera, 72.152 euroko kostua (BEZa barne) aurreikusia duena.

3. PDF: Landa Garapen Programaren baitan sartu eta bertako finantziario eskaeraren onarpena.

Erabilera Anitzetarako eremua sortzeko proiektua onartzearekin batera, Tokiko Garapen Parte-hartzailearen Estrategiaren (Estrategia de Desarrollo Local Participativo, EDLP) baitako Nafarroako 2014-2020 Landa Garapen Programaren laguntza deialdira aurkeztea proposatzen du. Deialdi honetako baldintzak, 2017ko urriaren 20an argitaratu ziren NAO-aren 203. zbkian.

Baldintza horiek ikusita, Aresoko Batzar Orokorrak, Aresoko Eskol- Etxeko ekialdeko lehenengo solairuan, Erabilera Anitzetako eremua sortzeko proiektua, Tokiko Garapen Parte-hartzailearen Estrategiaren (Estrategia de Desarrollo Local Participativo, EDLP) baitako Nafarroako 2014-2020 Landa Garapen Programaren deialdira aurkeztea erabaki du aho batez.

4. Aresoko idazkaria, Mendialdea eta Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateetako idazkari moduan aritzeko enkomenda hitzarmena.

Jakina den bezala, oraingo udal idazkari- kontuhartzaileak, Gizarte Zerbitzu eta Mendialdea Mankomunitateetan ematen ditu zerbitzuak, % 10 eta %20 batean hurrenez hurren. Orain arte, idazkari hau, hiru entitateetako bakoitzarengatik kontratatua izan da, alegia 3 kontratu ezberdin zituela eta jardunaldia 130%koa. Langilearen funtzioen ekomenda betetzeko hau modurik aproposena ez denez, Aresko Udalak, beste bi entitateekin hitzarmen bana sinatzea proposatzen du, funtzio eta jardunaldi banaketa bertan txeratuak gera daitezen.

Gauzak horrela, eta aurkeztutako hitzarmenaren proposamena ikusita, Aresoko Batzarrak aho batez, Gizarte Zerbitzu eta Mendialdea Mankomunitateekin hitzarmen bana sinatzea adosten du, udal idazkari kontuhartzailea, entite horietan ere bere zerbitzuak eman ditzan, %10 eta %20ko jardunaldi proportzioan.

5. Banda Zabalaren ezarpenerako Nasertic enpresak aurkeztutako "Areso - A15 -Leitza loturarentzako hobiratze proiektua"-ren onarpena eta honen finantziario planaren onarpena Nafarroako Tokiko Inbertsioetarako Planaren bidez.

2021eko Banda Zabalaren Plan Zuzentzaileak azpiegitura honen hedapena jasotzen du. Modu berean, 2017-2019 Nafarroako Tokiko Inbertsioetarako Planak ere, azpiegitura hau bultzatu du, udalerriei obra hau finantziario modu bat eskainiz. Zentzu honetan, 2017ko maiatzaren 12ko, 197/2017 Ebazpenak, Tokiko Administrazioiko Zuzendari Orokorrarenak,

PIL honen bidez diruz lagungarriak izango diren hedapenak zehaztu zituen, eta horietan, Aresorako adarra azaltzen da, 44.000 euroko aurrekontuarekin.

Banda Zabalaren hedapen hau adar askotan egitekoa denez eta proposamen efizienteagoak egiteari begira, proiektu hauen diseinua eta garapenaz NASERTIC enpresa publikoa arduratzen ari da. Enpresa honek, "Areso - A15 -Leitza loturarentzako hobiratze proiektua" osatu eta Aresoko Udalari aurkeztu dio.

Proposamen honetan, banda zabala hedatzeko hodiak, Aresotik, Leitzako bidegurutzeraino doan bidetik lurperatzea proposatzen da. Hau ez zen hasierako zirriborroan pentsatutakoa, baina askoz konponbide garbi eta merkeagoa da.

Honetarako, udalak, bide hori igarotzen den bizilagunen baimena lortu du, Javier Caballero, Josefa Margarita Zabalo, Josefina Mugerza Villabona eta Mikaela Martirikorena Machain hain zuzen ere.

Naserticek aurkeztutako proposamen honen aurrekontua, 32.646,61 eurokoa da, horietatik, %80a PILaren bidez finantzatuko litzateke eta gainontzekoa eta BEZa, udalaren gain, 13.385,11€ zehazki.

Hori guztia ikusita, Aresoko Batzarrak aho batez, NASERTIC enpresak osatutako "Areso - A15 -Leitza loturarentzako hobiratze proiektua" onartzen du, 39.502,40 euroko aurrekontua duena BEZa barne, eta baita, bera ordaintzeko honako finantziazio plana ere:

PRESUPUESTO EJECUCION MATERIAL DEL PROYECTO (sin IVA):	30.034,88 €
HONORARIOS PROYECTO Y D.O. (sin IVA):	2.611,73 €
Total Proyecto sin IVA	32.646,61 €
21% IVA	6.855,78 €
Total Proyecto con IVA	39.502,40 €
Subvención Gobierno de Navarra (80% coste sin IVA)	26.117,29 €
Importe a abonar por ayuntamientos promotores del ramal (20% coste sin IVA+ IVA del total)	13.385,11 €
Total	39.502,40 €

6. 2016KO KONTUEN LIKIDAZIOA:

Idazkariak azaltzen duenez, 2016ko kontuen kontabilitate eta likidazioa egitea ohi baino gehiago kostatu zaio, horiekiko aurretiko ezagutza falta dela eta. Gainera hainbat akats tekniko ere aurkitu dira, datuak urte batetik bestera gaizki jasoak izatea, edo hasierako aurrekontuaren kontabilizazioa, onartutakoaren berdina ez izatea adibidez.



Egoeraren azalpenerako 2017ko azaroaren 16ko txostena aurkezten du, "Preskripzio bidez 2016ko Itxitako Aurrekontuen Dirusarrerren Kantzelazioa" izendaturikoa. Txosten honetan, honakoa azaltzen da:

6.1. Akats teknikoen zuzenketa:

Eskubideen aitortzako hasierako idazpenean ordaintzeke ageri den kantitatea, ez dela, hainbat kasutan, hurrengo urtean "Itxietan" ageri denaren berdina.

Bestetik, 2014an zehar egondako itxien inguruko dirusarrera guztiak, ez dira 2015era zuzen pasa, eta beraz, ordaintzeke ageri den kantitatea ere, ez da zuzena. 2015ean murriztu beharreko kantitatea, hain zuzen ere, 89.150,82 eurokoa da.

Akats hau "Elusederreko Urbanizazio Kuoten" idazpeneri ere eragiten dio, ordaintzeke gelditu beharreko kantitate zuzena 22.626,57 eurokoa delarik.

6.2. Hainbat eskubideen idazpen bikoiztua.

Agerian gelditu denez, Aresoko Udalaren aldeko hainbat eskubideen idazpena, bitan egin da. Esate baterako, Baso Planaren Obretan adibidez, 2013an aitortu zen hasierako dirulaguntza eta kobratu gabe gelditu zen. Hurrengo urtean ordea eskubide hau "kobratzeke itxietan" agertzeaz gain, eskubide berri baten gisan idatz izen eta beraz, kantitatea bikoiztua gelditu zen. Gauza bera gertatu da 2015eko Ura, Uso parada eta hurrengo Baso Planarekin.

6.3. Preskribatutakoak kanzelatzea

Horretaz aparte, 2005etik aurrerako kobratu eta ordaindu gabeko eskubide eta betebeharrak ugaritu dira. Ordaintzeke dauden zorrei dagokionez, idazkariak horiek aztertzeke astirik ez duela izan aipatzen du, eta beraz, 2017ko kontuak itxierarako gelditzen den lana dela.

Kobratzeko dauden eskubideei dagokionez ordea, Geserlocal enpresarekin kontrastatu duenez, 2001tik hona Aresoko Udalak ez du bilketa- betearazlerik egin. Hortaz, 2012tik atzerako kobratu eta ordaindu gabeko idazpen guzti horiek (4 urte baino gehiagoko aintzitasuna daukatena), preskribituak deklaratzeko baldintza guztiak betetzen dituztela azaltzen du. Osotara, 25.130,97 euro dira kobratzeke dauden horiek, "preskripzioa dela eta kanzelatzeke dauden idazpenen txostena"-k, azaroaren 16koak, zehazten duenez.

Gauzak horrela, Aresoko Batzarrak, aho batez honakoa onartzen du:

LEHENENGO: Idazkari- kontuhartzaileak "Preskripzio bidez 2016ko Itxitako Aurrekontuen Dirusarrerren Kantzelazioa" osatutako txostenean azaltzen denarekin bat eginez, 2005etik 2016ra bitarteko idazpenetan atzemandako akats tekniko eta bikoizketa akatsak zuzentzea onartzen da, zeintzuen kantitatea 33.346,09 eurokoa den.

BIGARRENA:, 2016ko “Aurrekontu Itxien Dirusarrerren Egoeraren Adierazlea”-n azaltzen diren 2005eko urtarrilaren lehenengotik, 2012ko abenduaren 31ra bitarteko Aresoko Udalaren aldeko eskubideen preskripzioa deklaratzeko eta beraz, bajaran ematea.

Preskripzio honen salbuespen bakarra, 2012ko 1.791 idazpena da, “Eluseder Urbanizazio Kuotak 1” deritzona, zeinen inguruan azkeneko 4 urteetan ordainketa eta erreklamazioak bai egon diren. Hortaz, idazpen honetan kobratzeke gelditzen den kantitatea 22.626,57€tan izango da.

Honenbestez, lau urte baino gehiagoko antzinatasuna duten, tarte horretan ordainketa erreklamaziorik egin gabeko eta beraz, preskripzioa aitortzeko “Aurrekontu Itxien Dirusarrerren Egoeraren Adierazlea”-n azaltzen diren gainontzeko izendapenen kobru pendientea, 25.130,97 eurokoa da.

6.4. Kontuen likidazioaren onarpena.

Idazkari- kontuhartzaileak “2016ko kontuen Likidazio Txostena” aurkeztu du, honako datuak jasotzen dituen:

Aurrekontu Eraitza

Aurrekontu Eraitza	121.773,07
Finantziario Desbiderapen Positiboa	47.618,90
Gerakinenkin Finantzatutako gastuak	1.897,41
Aurrekontu Eraitza doitua	76.051,58

Azaltzen duenez, eraitza positiboa izan bada ere, kontutan hartu beharra dago 2016an zehar bi ezusteko dirusarrera egon zirela: Egur loteari dagokiona (Zubillaga 52.778,88€) eta Jarduera Ekonomikoen bultzadarako Estatuko dirulaguntza (53.103,55€) hain zuzen ere.

Gerakinei dagokionez hauek dira 2016ko datuak:

REMANENTE DE TESORERÍA

Izena	zenbatekoa 2016	zenbatekoa 2015
Gerakinak OSORIK	606.685,76	402.805,13
Gastuen finantziarioaren eraginpeko Gerakinak.	47.618,90	-
Ondasunen eraginpeko Gerakinak.	-	-
Gastu orokorretarako Gerakinak	559.066,86	402.805,13



Taulak azaltzen duenez, eraginpeko gastuen finantziatorako 47.618,90 euro jaso dira. Kantitate hau, herriko zoladuraren konponketarako Aseguruak emandako eta oraindik gastatu gabeko diruari dagokio.

Agerian gelditzen denez, aurtengo Gerakina handitu izan da aurreko urtekoarekin alderatuta, eta beraz, Udalak, bere inbertsionarako gaitasuna handitu du.

2016ko kontuen likidazio datuak aztertuta, Aresoko Udal Batzarrak, 2016ko kontuen likidazioa onartu du, zeinek 76.051,58 euroko Aurrekontu Emainza doitu eta 559.066,86 euro gastu Orokorretarako Gerakinak jasotzen dituen.

Aldi berean, Aresoko Udalak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan ezarritakoarekin bat eta Toki Ogasunaren gaineko Foru Legearen 242.artikuluarekin bat eginik, espedientea jendaurrean hamabortz egunetan egonen dela onartzen du, interesdunek aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

7. AURREKONTU ALDAKETA 7/2017: KREDITU GEHIGARRIA:

Gaiordenean sartua ez badago ere, bertaratutako zinegotziak onartu egiten dute aho batez, 7/2017 kreditu gehigarriaren moldaketaren gaia, batzar honetan sartzea.

Aresoko Udalak zoladuraren konponketa egin eta bukatu du 2017. urtean, aurretik esleitu zitzaion enpresaren kontura (ejecución subsidiaria moduan). ASESMA MUTUA DE SEGUROS asegurueteak konponketa ordaintzeko behin behineko 74.795,63 euroko ordainketa egin zion Udalari. Obrak bukatuta ordea, horiek kostua handiagoa izan dela ziurtatu da, hain zuzen ere, 10.610,23 euro gehiagokoa.

Hori kobratze aldera, 105/2017 Alkate Ebazpenaren bidez, ASESMA aseguru etxeari, behin betiko likidazioa egin eta kantitate hori ordaintzeko egin zitzaion.

Honek, bai konponketaren gastuaren handipena eta baita, behin betiko likidazioaren diferentzia ere 2017ko aurrekontuetan txertatzeko aldaketa egitea eskatzen du, hain zuzen ere, kreditu gehigarriaren moldaketa.

2017ko azaroaren 15eko idazkari txostena ikusita, batzarkideek aho batez, 7/2017 aurrekontu moldaketa egitea adosten dute.

Gastua / Gasto:

Part. kodea – código part.	Azalpena – Denominación	Importe – Kopurua
1.1533.6190	PAVIMENTACIÓN CALLES	10.610,23

6. kapitulua	Inbertsio errealak / Inversiones reales	10.610,23
---------------------	--	------------------

Financiación / Finantzazioa:

Part. kodea – código part.	Azalpena – Denominación	Importe – Kopurua
77000	Empresa privada aseguradora	10.610,23
7.Kapitulua	Kapital transferentziak/Transferencias de capital	10.610,23

8. ALKATE EBAZPENAK:

Bertaratutakoen astia dela eta, 2017ko azaroaren 16ko batzar orokor honetan, ez dira Alkate Ebazpenen berri eman, eta hortaz, hurrengo batzarrean egiteke gelditzen da.

9. MOZIOAK: Udalbiltza kataluniari buruzko adierazpena.

Kataluniako Indenpendentzia Adierazpena dela eta, honako mozioa onartu du Aresoko Udalak, aho batez.

“Carles Puidgdemont presidentak Kataluniako independentziaren adierazpena egin eta gero, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik, UDAL HONEK honakoa adierazten du:

- 1.- Aitortza erakutsi nahi dio Kataluniako errepublikari.
- 2.- Exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoan, adierazi den.
- 3.- Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei, alderdi politikoei eta errealitate hori posible egiten duen orori.
- 4.- Zorionak ematen dizkie bereziki, azken urteotan lan eta lan aritu diren udal hautetsi guztiei, erakutsi duten kemen eta konpromisoagatik. Eredu dira guretzat.
- 5.- Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiek euren etorkizuna erabakitzeke duten eskubidea.
- 6.- Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlament-era eta Kataluniako Independentziaren aldeko Erakundera (AMI) igortzera”.



COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA

Acta de las Entidades Locales

H N.º 50806

10. Eskaera eta galderak.

Ez dago.

11. Denetarik

Aztertu beharrekoa aztertuta, 19.50 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

